

# San Joan suen agerpideaz

Hamar artikulu idatziak ditut Ekaineko ospakuntza. Hoiatarik zapi Gogoz eta Bidez liburuetan jasoak daude eta bildutako materialeri begiratu bat ematen badigu, eguzkia altxuen dagoen urtaromugak bere inguruan bilduak dituen sua, ura, landare edo zuhaitz sinbolok aurkituko ditugu kosmogoniarren inguru agertzen diren sinieskerian. Noizbait, Neolitos aldiari bizitzaren erro eta ardatz izan zitekeen siniesmenen aztarnak dira, zati-katurik heldu zaizkigunak. Izan ere, aintzinako gizonarentzat Eguberri eta Ekaina ziren bizitzako garairik garrantzitsuenak. Naturaren izate guztiari loturik aurkitzen zituzten bi urtaroko ziren.

Mircea Eliade-k esango digenez, aldi berri bat hasteko beharrezkoa omen da aldi zaharra bukatzea, eta hortik sortzen dela eternitate jotarrietara berri itzultzearen ideia. Aldi berriaren lektor berrikuntza, eta izenak berak dion bezala, berri zortzearen antzerkioa da. Lao Tse-k *Tao-te King-en* agertzen zenez, Bizitzaren eraberritzea da munduaren etengabeko berrikuntza.

Eguzkia, bizia beru edo bizia ematen duena da. Bere sinbolotik hurbilena, sua.

Sua, eguzkiaren indarra bait da. Egurra honen materia, zuhaitzarekin edo enbor baten bidez agerraraziko dena. San Joan edo Donibanez,

Kukainak jartzen dira, Bizkaiko zenbait herritan Dominatza (Donibane haritza) delitzen zaiona. Ekainaren 23ko gaua da eguzkiaren gorakada bukatuko duena eta kontatzen dion bezala: "Mendietako baserrietan, kaleko plaza denetan, San Joan suak pituzten dira gau zoragarri honetan..."

Biharamun egungentz eguzkia biraka edo dantzan iritzen omen da. Nonbait, aintzinatik ohartuak ziren eguzkia bere ardatzean biraka ari dela eta horren agerpena dugu nonbait zurrubillo baten gisa, biraroko apaingarri erabiltzen den sinbolo amaierarik gabea eta baita laburria bera ere. Eguzki gurtzea ere jaso izan da.

Baina, Donibane egungentz, eguzkia irten baino lehen, itzetan bustitzea, San Joan iturrietan garbitzea edo lbaian saritzearen ohiurak ziren. Bari sutatik jauzi, "sarna fuera" edo arreatzen soroak zuziz igaroaz "sorginak eta lapurrak erre" ohiakuz.

Akelarreak ere, XVII. mendearen hasieretako agerietan agertzen zai-gunez, Donibane bespera gaua zuten garairik egokiena. Garbikuntzaren aldezaurreko orgiaren aztarna nonbait.

Dena dela, kristautasunaren aurretiko sinieskerien aztarnak ditugu, herriaren ohiuretan isatsiak.

Baina, bere garaiko zentzu zihurra galdurik heldu zaizkigunak.

Testamtu Zaharrean Deuteronomio-n pasarte batean (XVIII, 10) agertzen zaigu pertsonak suaren gaitetik jauzika igarotzea eta sorginketaz jotzen zen.

Gaiaren jatorria edo sustraia, bere agerian, Kosmos berritzea beste-rik ez da. Gainerako guzta bere inguru misteriozkoak beregan sortu duena besterik ez. Gaur oraindik, egungo gizonarentzat bizitza bera misterio bat baldin bada, aintzina-koentzat ulerkaizagoa zen. Baina, Naturarekin lotura gehiagoz bizi zen garai hartako gizonak ahal zuten neurrian eman zion kosmogoniatz zentzu bera izateari. Beraz, ez harritu "Ekehi sailduatzi" hartu bazuten xuberoitarrek, Luzaiden esangoa zuten "O Iruzki sailndu, emakiguzu illeko ta biziko argia", eta Bankakoek, "Adio Iruzki sailntua, bihar arte; bihar xauri (aioz) egun bezala". Errigotikoei, "Eguzkia joatean esan ohi zuten "Eguzki santu be-deinkatue, zoaz zeure amagana".

Kristok ordea, mezu berri bat zekarren gizonarentzat, notoriatu bereziki bat agerrazitako zuen gizon ba-koitzarentzat Natura guztiaren gaitetik eta lehengo sinieskera zahar-rok folklore murriztu batean geldit-urko ziren, denboraren joanean zait-katuz eta pikortuz, betirako galdorian sartuz. Sineskera zaha-

rraen bukaerazko agiri aztarnak ere aspaldikoa ditugu eta maiz uler-kaitez:

**San Joan dela, San Joan: zure goiko soruan**  
**Sorgin begia galdu da; galdu bada, galdu bedi; nekula agertu epealdi!**  
 Gerotzik: "Izarra dogu Batista, eguzkia Jesukristo". Zeren, "Eguzki dibinala gaberdi batean, etorri zan lurrera gizonen soñean". (N.Zubia, *Doctrina Christiana*, 1691).

Juan SAN MARTIN  
 No es nada fácil la tarea de recomponer las creencias que subsisten en torno a los solsticios con los ritos del fuego y el agua, que hemos heredado fragmentariamente desde épocas prehistóricas.

Mircea Eliade situa en el mito del año circular, en su reiteración de la cosmogonía, en el eterno retorno al origen. El fin de una era para dar comienzo a otra nueva. En el ciclo cósmico: "Para que algo verdaderamente nuevo pueda comenzar es preciso que los restos y las ruinas del viejo ciclo estén completamente destruidos". Las hogueras cubren esta necesidad, materializando el hecho, en la idea del eterno retorno, porque con el amanecer del nuevo día llegará el tiempo de las aguas purificadoras ofreciéndonos nueva vida.

Con la introducción del cristianismo, la humanidad recibe el im-

pacio de su...  
 su senda de...  
 o abandonado...  
 Sin necesidad...  
 naves, la...  
 nueva vida...  
 en el transcur...  
 llas práctic...  
 menos cuant...  
 conceptos...  
 la nueva realid...

Entre las...  
 días en nuevo...  
 los saluda y...  
 solaz que goza...  
 mos que para...  
 tianos no s...  
 causa del Sol...  
 ha hecho el...  
 el mito simb...  
 segura sin...  
 como es el...  
 ticas encoun...  
 en capas imp...  
 destierro de...  
 rey, bas la...  
 presencia del...  
 Todo esto...  
 folklorico de...  
 mejor la...  
 hombre. Fue...  
 de la vida s...  
 las propias...  
 de San Juan...  
 tiempos.

# Fernando Amarika, Gasteizko pintatzailea

Ezin uka Herria gizonak diseinatu-zen dutenik. Mendek erakutsitako lorpenak gizonaren lana adierazten digute, etengabeko lasterak ez dakigu nora eramaten gaituelarik. Baina, bestalde, Herriek ere heuren arastroa utzi dute, orain arte behintzat, gizonarengan, inguruak horren nortasun eta izakera kutsatu dituelarik. Gizona eta Herria, beraz, bereziki joan ez daitezkeen izakiak ditugu. Bata bestearen beharrea aurkitzen da bizi ahal izateko.

Derrigorrezko sinbiosis hau pintatzaile baten obran azaleratziko diot irakurleari. Gasteiz eta Euskal Herriaren izenak sarri ahozkaterrazi dituen artista haundia dugu **Fernando Amarika Medina**. Batzuek Arabako probintziak sorturiko pintatzailerik aipagarrienzat daukate.

Pintatzailea Gasteizen jaio zen 1866ko Ekainaren 1.ean. Beraz, aurtun, 115 urte betetzen dira. Bere gurasoak Vidal eta Nikolasa izan ziren eta hauekin bizi izan zen haurtzaroa eta gaztaroa. Fernandok egin zituen guri mailako lehen ikasketak Zuzenbidekoak izan ziren, Valladoliden. Bere osaba batek, Ramón Ortiz de Zarate, ospe haundia zuen irabazitza Araba guztian legegizon bezala eta lobak ogibide berdina har ezala nahi izan zuen. Karrerari amaiera eman zion Fernando baina laster baztertu zuen bulegoko lana, barnean zeraman zale-tasunari aukera emateko.

Ez zen inoiz Pintur-Akademia edo Arte Eskolan ibili. Noski, zenbait maixuk pintatzaile gaztearen hildoa argitu zuten, heuren jakintza ederki lagundu zituelarik. Batez ere, hastapenetako lehen urratsetan. Fernandok berak dion bezala, hiru pintatzaile izan ziren aholkuz lagundu zitotenenak: Gasteizen garai hartan zen berri-tatzaileirik onena: Emilio Soubrier; urteetan zehar lagun haundia izango duen Ignazio Diaz-Olano gasteiz-tarra; eta, azkenik, Madrilen iharduten zuen Sorolla valentziar ospetsua, honenkin lau hilabetetan ikasten saiatu baitzen.

1956ko Hazilaren 6an hil zen, 90 urte zituelarik. Bizitza luze honetan egindako lana zein den eta nolakoa izan den jakinerazi ahal izateko, zutabe hauek eskaintzen didaten posibi-litatea baino haundiagoa euki be-haruko nuke. Hamalau Arteder Lehiaketatan azaldu zituen bere obrak, nahiz halako norgehiagoketa-ria lanik bialtzeko zale haundirik ez izan. Hamalau hoiatarik hiru Parisen izan ziren, bat Marsellan eta beste bat Belgikan. Gaienezkoak Madrilen, Gernikan eta Gasteizen. Honex zera

adierazten digu: Amariaren lana ezagunduzela, esiatuan ez ezik baita Añanmendiatatik harantzagoan ere, batziki. Esaterako, 1905 eta 1908an Parisera azalduko bi paisaiak: New York-eko Wulsin eta Pariseko Worth bildumetarako izan ziren erosiak.

"Gasteizko pintatzailea", "Zadorra hibaitezakoa pintatzailea", "Gipuzkoako mendietako pintatzailea", "Kantauri aldeko pintatzailea"... Amariari kritikak aplikatu-tako titulu batzu ditugu. Bere hitzak dira ondorengoak, Bernardino de Pantorbari zuzendua: "Pintatzaile errealista naitzela uste dut, baina beste-pintatzaile ezina zaidun ezet ez dut pintatzen, beste hoiak ez badute nik bezala sentitu ahal izango. Gai-aren aurrean pintatzen dut beti, ezet al-datu barik, eta laukia-haundia nahiz txikia izan pintatzen ari naizen tokian bertan amaitzen dut. Koloreak erakar-tzen nau; argia dut maila, marraren arabesko adierazkorra atsegin dudala-rik".

Amariak hiru erakuseta baka-rrik egin zuen pintatzeari ekin zione-tiki. 1923an Madrilen, 1924an Gas-teizen eta 1935ean Barzelonan. Nahiz eta harrigarri dirudi ez zuten inoiz erakusketetarako joerarik azaldu. Eta arrazola gizonaren izake-ran bilatu behar dugula uste dut, Fer-nando oso gizon apala izan omen bai-tzen, erose-gai asko euki arren. Laukirik garrantzitsuenak beraren-tzat gorde zituen, beste usmoa obrarik gehiena Erakustoki baitara biltzea baitzen. Eta honela gertatu da, gau-rreragun Amarika Museon ikusi baita-itezke pintatzaile honen lanik adieraz-korrenetakoa.

Fernando Amarika paisaiaria izan zen, baitz ere. Poliki, emaro osatu-tako laukiek gaztararen kalitate maila noraino iritsi den erakusten di-gute.

Bere garaiko pintatzaile izan zen Amarika; zuhaitz eta landareta zu-nahiago zituen hariarik eta mendil-buziak baino. Bidalari porrokatua, Es-painian nahiz Europan ziren teknika-rik aurrerakoiaren bereganatu zituen, berea aberastu nahian.

Fernando Amariakak bere Herria bizi izan zuen. Araba eta Euskal Her-riko beste probintziatoko bazterrak sakonki miatu zituen, "zerbait" en-bila. Eta bere bizitzaren azkenengo uneetan, hirurogei urtetan pintatu-tako lanen zerrenda gogoratzen duela irripur goxo bat nabaritzen diei zitzaion epainetan. "Zerbait" hori euki ar-tuan zeramala baitzekien.

José Mari VELEZ DE MENDIZABAL

# HITZ EGIN!

3. MAILA

## ITSASOA ETA NI



3. maila  
 Histori saila

EUSKALDUN ARRANTZALEEN  
 BIZIMODUA AFRIKAKO ITSASOETAN

# AGERTU DA!

"Kronika hauk ez dira alegiazkoak, egiazkoak baizik. Egia hutsa kontatzen dute. **Anaitasuna** aldizkarian argitaratu nituen gehienak, Bizkaiko euskaraz, orain 24 urte. Liburu honetan, batuan jarri ditut, oinarritzko euskararen hirugarren mailan".  
 Imanol Berriatua

EUSKALTZAINDIAREN  
 ONARRIZKO EUSKARARAKO BATZORDEA  
 IBERDUEROREN LAGUNTZAZ